



DIRU SARRERAK

Gizartearen onerako zerbitzu bat ematen dugunez, gazteentzako txarлак emango ditugu. Pertsona helduen arazoak azaltzeko, edo bereziki haiek bizitzen duten bakardadeaz hitz egiteko. Hortaz gain, gazte eta zaharren arteko elkarreragina sustatuko dugu. Txarla hauengatik 50€ kobratuko ditugu orduko.

Behin komunitatea sortua, hainbat gauz kobratuko ditugu. Lehenik alokairua 500€ iruditzen zaigu eraikitze gastuak kubritzeko minimoa dela. Bigarrenik kudeaketa, honengatik 90€ kobratuko ditugu, guk diru eragiketekin lagunduko diegu, ekintzak antolatuko ditugu. Hau da komunitate guztiaren funtzionamendua bermatzen dugu. Mantenua 30€ izango dira, mantentze langileei ordaindu behar zaie, zona komunak garbitzeko, jardina txukuntzeko eta hainbat mantentze ekintza gehiago egiteko.

Amaitzeko energia berriztagarriak ordaindu beharko dituzte 30€. Baina hainbat arau bete behar dira ezin dutelako ordaintzen dutena baino gehiago gastatu.

Hasierako komunitatea 10 pertsonen osatuko da, horregatik, kostu guzti hauekin, hilabetero 650€ ordaindu beharko dituzte bakoitzak eta hasieran 300€-ko finantza, baina, komunitatetik irtetzean dena ondo badago finantza hori bueltan izango dute. Hori guretzako 7.200€ izango dira hilabetero.

Andoainen pisuko alkilerria 400€tik 2000€tik ingurura doa. Hortaz, nahiz eta gure komunitatea baino pisu merkeagoak egon, ez dituzte guk eskaintzen ditugun ekintza edo baliabideak eskaintzen. Gainera gure komunitatean energiaren prezioa sartuta dago.

Energia berriztagarrien arauak:

- Gailu elektrikoak behar direnean erabili soilik. Etiketetik irteterakoan dena itzali.
- Ez daude baimenduak honako bonbila hauek: halogenoak, incandescente klasikoak, dicroico zaharrak eta fluoreszente zaharrak, kontsumo handiegia dutelako.
- Lehorgailua, mikrouhina edo labea, bezelako gailuak ez piztu aldi berean. Energia solarra modu eraginkorrean erabiltzeko.
- OHARRA: Hilabete kontsumoa 30€koak bermatzen duena baino gehiago bada, erabiltzaileak aparte ordainduko du.



Ekintzak gure soldatatik aterako dira eta hasieran ez badauzkagu bezero askorik edo diru sarrera askorik, gastu horiek gure dirutik atera beharko dira.